

# B

BARREN

TOKIKOM

# Historia egin du



## ekiozu jarri zure ametsak lanean



EKINTZAILEAREN EGUNA  
MARTXO  
20  
DEBABARRENA  
EUSKAL HERRIA

### EIBARKO DEBEGESAKO EGOITZAN

Ekitaldia etorri nahi baduzu...

Idatzi debegesa2010@gmail.com helbidera  
edo deitu 944 709 743 telefono zerbakira.

Arrolatzaileak



Babeak:



www.enpresarenbidea.com

- 18:00-18:15 Parte-hartzaileei hasiera.  
18:00-18:30 Debabarena Ekintzailearen Eguna Azalpena.  
18:35-18:40 Ekitaldia hasiera.  
18:40-18:50 Ongi-etorria, Eibariko alkate Miguel de los Toyos Jauregi eskuitik.  
18:50-19:30 Business Angels Euskadin, enpresa proiektu berriak finantzatzeko eta inbertsio pribaturako modu berriak. Hitzariak:  
- Josean Arratibel BAN Euskadi ADEGIko kudeatzailea.  
- Itzi Arpizau BAN Euskadiko aholkularia.  
19:30-19:50 Eskualdeko enpresa esperientzia berriak:  
- Lizura— Luxury and elegance for pets  
- Aupa mediku-estetika zentroa—teknologia berriak.  
- Ana Quiroz— Quill Events.  
- Proyecto Giko Proteccion—Makinariarentzako babes sistemak.  
19:50-20:00 Debabarena Ekintzailearen eta Bai Industriari erretokozimendua.  
- Seminare: Debegesakako baloreen proiektuaren gaineko hitzaldia, Juan Ángel Balboa Debegesakoko Zuzendari Nagusiaren eskuitik.  
- Inurrikotasuna edo nekazaritza.  
Saria emango du: Sorakuzeko alkate Jose Luis Arizaga Jauregi.  
- Taldean lan egitea.  
Saria emango du: Elgoibarko Udako ordezkariak.  
- Plus Ekimena.  
Saria emango du: Merve Garcia Eibariko Udako Industria, Enplegua eta Merkataritza Batzordeko lehendakariak.  
- Bai Industriari  
Saria emango du: Caja Rural de Navarrok zonaldeko arduradun Nuria Delgado Andersek.  
20:00-20:10 Ekitaldia amaitzea eta luntxa.

**teknologia** zure aliatua da  
**ezagutza** zure bazkidea da  
**sormena** zure energia da

# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era  
15:00etatik-20:30era

### LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutzarekin ordaintzeko erraztasunak

## Txapeldunen zirkua

Egun hauetan bada zalapartarik hedabidietako zein webgunitako foro eta blog ugaritan. Gaixak asko izan daittekeen arren, mendixakin zer ikusixa dakaben berrixak ari dira egunetik egunera gero eta interesgarriak jartzen.

Hasteko, esan behar da Edurne Pasabanen azken balentria pozarren hartu dala espainiar gizartian orokorrian, politikuetatik hasi eta, mendixari “nazka” diotenek ere zoriondu baitabe tolosarrak egindakua. Egun hauetan Shisha Pangmara igotzeko “setioa” prestatzen ari da, bere bizitzako lasterketa zirraragarriena amaitzeko asmotan.

Bestalde, *Miss Oh* korearraren igoeraren inguruan ere ikusmira handia sortu da mundu osuan. Behin Annapurna beria izanda, korearraren balentria gaizki ikusi dabe Europa mendebaldeko kritiko gehixenek. Bekaizkerixa ote?

Gehixenek korearraren estilua eta elkartasun eza ez dirala egokiak salatu dabe. Trapu zikiñak etara ditzuzte mahai gaiñera: Kangtxenjunga, bai ala ez? Eta, Lhotse? Cho Oyu? Edurnek berak aditzera eman dau *Miss Oh*-ren bi sherpa adierazpenak egiteko prest daudela. Zergaittik joko horretan sartu? Lasterketa honetan irabazi ekonomikuak daka garrantzixa, pertsona modura asko usteltzen ari dirala konturatzen diran arren. Dana pantomima hutsa dala iruditzen jata. Edurneren eta *Miss Oh*-ren estilua zertan ezberdintzen dira? Ez al dira

berdinak? Telebista katiak, helikopteruak, soka-finkuak, sherpa eta zamaketari sekituak...

Honen harira, orain dala gutxi han gelditu zan Tolo, elurak urtuko ez diran tokian, berari gustatzen jakona egiten, baiña iñork nahi ez zaban amaieriakin. Gertaera horrek are gehixao harrotu dittu korearraren kontrako salaketak, batez ere, Juanitok egindako deklaraziuengaittik. Nere ustez, gasteiztarrak autokritika egin beharko leuke: berak egin zaban bere momentuan, orain zer behar daka berriz hortan sartzeko?

Eñaut Izagirre



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Edurneren eta Miss Oh-ren estilua zertan ezberdintzen dira?  
Ez al dira berdiñak?”

## ELGOIBARKO MENDI ITZULIKO IRUDIAK JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!




**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

 ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA

# BERTAN DA ASTE NAGUSIA



**Atzerako kontua hasi da. Gaur zortzi, lepoan zapi gorria lotzeko eguna izango dute Elgoibarko gaztetxoek. Izan ere, aurren, lehenengo aldiz, Aste Nagusia ospatuko dute ludotekako erabiltzaileek, 5 urtetik 12 urtera bitarteko neska-mutilek eta haien etxekoeak. Jai bereziak izango dira, eta egitarau oparoa antolatu dute, lagun berriak egin, familiak elkartu eta denek elkarrekin jolasteko. Aste Nagusian, gainera, gonbidatu berezi bat etorriko da Elgoibarrera: Ludo. Urrian oporretara joan zen Ludo, ludotekako haurren laguna, baina jaietarako bueltan izango da berriz, zapia lepoan duela.**

**Ainara Argoitia**

Gainean da Aste Nagusia. Ludotekako erabiltzaileek eurentzako eta euren adin bereko umeentzako prestatutako jaiak dira. "Ludotekak ere bere jaiak behar zituela iruditu zitzaigun, nortasun bat behar zuela, eta halaxe hasi ginen lanean", zehaztu du Chusemi Vicente hezitzaileak. Jai batzordean, hamabost bat umek parte hartzen dute, hezitzaileekin batera, eta txupinazoa botatzeko irrikaz dira guztiak. Herri bat baliuz moduan atontzen ari dira ludoteka, egitaraua osatu dute, eta pregoilaria ere aukeratu dute, hilaren 21ean jaiak hasteko. Jaien aitzakian ludotekan izan da BARREN.

Hiru urte dira Elgoibarko ludoteka zabaldu zutela, eta dagoeneko 160 bazkide baino gehiago ditu. Ludoteka Elgoibarko Izarrak kudeatutako udal zerbitzu bat da, Gaztelekua eta Gazte Informazio Gunea bezala, eta astelehenetik barixakura zabaltzen dute, 16:30etik 19:30ak bitartean. Hiru hezitzailek lan egiten dute bertan: Maria Cidek, Ainhoa Doradok eta Chusemi Vicentek, eta hurrek parte-hartze zuzena dute bertan antolatzen diren ekintzetan. Ludotekako bazter batean, esate baterako, postontzi gorri bat dute jarrita, proposamenak jasotzeko.

Jolastoki bat da funtsean ludoteka. Hurrek taldean jolastu, eta, bi-

de batez, lagun berriak egiteko gunea. “Askotan gertatzen da ez dutela euren ikastetxetik kanpoko beste umerik ezagutzen, eta hemen jende berria ezagutzeko aukera dute”. dio Ainhoa. Txoko ezberdinak ditu, eta dozenaka jostailu, jolasaren bidez haurrak elkarrenganako errespetuan hezteko. “Adiskidetza, lankidetza, laguntasuna, gauzak elkarbanatzea, talde jolasa... horiek dira gure baloreak”, zehaztu du Chusemik. Eta bistakoa da. Ludotekako apaletan ez dago kontsolarik. Mahai-jolasak, aldiz, non-nahi topa daitezke. Futbolin handi bat ere badute, baita antzoki funtzioa betetzen duen txokoa eta sukalde dotore bat ere. Ordenagailuak ere badira, jakina. Astelehen, eguazten eta barixakuetan erabiltzen dituzte bakarrik, eta ume guztiak erabili ahal izateko, hogeitun minutuko txandak egiten dituzte.

### Aisialdian, beti lagunekin

Aisialdia lagunekin igarotzeko egokitutako gunea da azken batean ludoteka. “Bakarka jolasteko jostailuek indar handia hartu dute. Ludotekan, hala ere, talde jolasa sustatzen dugu. Era berean, mailegu sistema ere badugu, eta barixakuetan umeek aukera dute jostailuren bat etxera eramateko”, adierazi du Chusemik. Maria Cid hezitzailearen arabera, “haurrek euren adineko lagunekin jolasteko gunea da ludoteka. Ez delako gauza bera gurasoekin jolastea edo norbere adin berekoekin jolastea”. Jolas librea bultzatzen dute, baina ekintza zuzenduak ere egiten dituzte. Egun bakoitzeko ekintza bat zehaztu eta asteko plana osatzen dute. Astelehenero, adibidez, Gaztelekura joaten dira. Egutegi hori etxera bidaltzen diete gero bazkideei.

Baina hori baino gehiago da ludoteka. Hiruhileko bakoitzeko, familia osoarentzako irteeraren bat antolatzen dute. Aste Nagusiaren barruan, esate baterako, Aralarra joango dira, artzainen bizimodua gertutik ezagutzera. Familia osoarentzako prestatutako irteera da. Izan ere, familia harremanak ere lantzen dituzte ludotekan. Iaz, adibidez, lau kafe tertulia egin zituzten gurasoekin, sexu heziketaren eta bideo jokoen inguruan.

Urtean zehar, bestalde, makina bat irteera antolatzen dituzte, bereziki udaldian. Irteera horietara bazkideak eta bazkide ez direnak ere joan daitezke, izena emanda, baina bazkideek lehenetsia dute beti: “Lekua badago edo nor etorri daiteke gurekin jolastera, baina lekua falta bada bazkide ez direnak kanpoan gelditzen dira. Bazkideek duten abantaila bat da hori”, dio horren harira Mariak.

Udaldira begira [ekainaren 21etik-uztailaren erdialdera arte] hainbat irteera antolatu dituzte. Hasteko, martitzenero, arratsalde pasa irtengo dira. Eguaztenetan, berriaz, Mintxetara igoko dira, eta eguenak egun pasetarako gordeko dituzte. Era berean, eta urtean zehar egin ohi duten legez, beste elkarteek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartuko dute, aukera duten aldiro. “Gabonetan ere urtero joaten gara Olentzeroren kalejira. Pin haur parkean ere izan ginen iaz”, esan du horren inguruan Ma



Haur talde bat, ludotekan.

## ASTE NAGUSIKO EGITARAUA

### MAIATZAK 21, TXUPINAZOAREN EGUNA

17:00etan, Aste Nagusiko kartel lehiaketako sariak banatuko dituzte, eta, ondoren, 17:30ak aldera, pregoia irakurriko du ludotekako jai baztordeko gaztetxo batek. Txupinazoa jaurtiko dute ondoren, Ludok lagunduta. Buruhandiak ere izango dira, eta txarangak girotuko du jaien hasiera. 18:30etatik aurrera, futbolin txapelketa jokatuko dute ludotekan bertan. Bi ume, edota ume bat eta guraso batek osatutako bikoteek parte hartuko dute. Aldi berean, ludoteka kanpoan, dantzaldi bat ere izango da.

### MAIATZAK 22, FAMILIA EGUNA

Aralarrera irteera egingo dute. 9:30ean irtengo dira Elgoibartik, eta 19:00ak alderako itzuliko dira. Aralarren, hamaiketako egin ostean, artzain txabola batera joango dira, oinez. Ordu bete inguruko ibilaldia izango da, eta han hainbat ekintza egingo dituzte. Ardiei ilea nola moztzen dieten ikasiko dute, eta ingurua ezagutzeko tailerra ere egingo dute, besteak beste. Familia osoarentzako irteera izango da.

### MAIATZAK 24, EUSKARAREN EGUNA

Herri kirolak egingo dituzte Plaza Handian, 17:00etan hasita. Herri kirolatan, ludotekako bazkide ez diren umeek ere parte hartu ahaliko dute.

### MAIATZAK 25, TXIKI EGUNA

Txokolatea eta txurroak jateko eta talde jolasetan aritzeko eguna izango da. 17:00etatik aurrera, ludotekan.

### MAIATZAK 26, GAZTE EGUNA

Ludotekako erabiltzaileek eurek antolatutako jai eguna izango da, eta hainbat ekintza egingo dira, ludotekan bertan: buruhandiak, merendola... Era berean, antzerki emanaldia ere izango da, ludotekako nagusien eskutik.

### MAIATZAK 27, ARTISTA EGUNA

17:00etatik aurrera, tailer desberdinak egingo dituzte ludotekan. Txapak, kamisetak, brotxeak... egiten ikasiko dute.

### MAIATZAK 28, JAIEN AMAIERA

Atxutxiamak antolatutako magia emanaldia ikustera joango dira. Ikuskizun hori hasi aurretik, baina, ludotekako gaztetxoek dantzaren egina dute. Ondoren, afari-merienda egingo dute ludotekan, Aste Nagusia antolatzen jardun duten gaztetxo eta hezitzaileek.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Caja Rural de Navarra, bezeroak itotzen

Orain dela urte eta erdi, 2008ko irailaren 26an hain zuzen ere, Interes tipoen estaldura kontratua sinatu nuen Elgoibar-ko Caja Rural de Navarraren bulegoan. Izan ere, banketxetik behin eta berriz eskaini zidaten aurrez aipatutako produktua.

Produktua eskaintzerako orduan Euriborraren igoeraren aurrean babes neurria zela esan zidaten, aurreikuspenen arabera gelditu gabe gora egingo baitzuten tasek. Gainera, garbi utzi nahi izan zidaten inolako kosturik gabeko produktua zela. Beraz, horren arabera, nire hipoteka mailegua tasa aldakorrekoa izateatik finkoa izatera pasako litzateke eta hiru urtetan barrena ez litzateke aldatuko hipotekarengatik ordaindu beharreko kopurua. Hori izan zen produktuaren nondik norakoez galdetuta bulegoko zuzendariak (ordura arte konfiantzako pertsona zena) eman dako azalpena.

Orain dela gutxi ohartu nintzen hipotekaren kuota ez zela mantenduko, eta gainera, delako estaldurari esker, hilabetean ordaindu beharreko kopuruak 150 euro egingo zuela gora. Orduan jakin nuen produktua ez zela segurua, ez zuela inolako estaldurarik ematen eta ez zuela tasa finko moduan funtzionatzen. Alderantziz, Finantza Arrisku Eratorria zela, inbertsio produktua, alegia; Espainiako Bankuko erreklamazio zerbitzuak adierazten duen bezala. Zerbitzu perfil espekulatuzaile edun eta finantza ezagutza handiko bezeroentzako da eta hori hipoteka mailegutik aparte, bertan behera uzteak kostu handia eta irtenbide zaila izango luke.

Beraz, nire hipoteka maileguaren ezaugarriak ikusita (%2,5eko lurzorua) eta produktuarekiko ezberdina zen berrikuspen data kontuan hartuta, sekula ez luke, esan zidaten moduan, tasa finko gisa funtzionatuko.

Sinatu aurretik sekula ez zidaten jakinarazi kontratua epea baino lehen bertan behera utziz gero, 15.000 euro ordaintzera iritsiko nintzenik. Izan ere, hori jakinez gero ez nuke kontratua sinatuko.

Hitz hauekin, ni bezalaxe arazo honekin topo egin dutenei jakinarazi nahi diet gure arazoak baduela irtenbidea eta ez gaudela bakarrik; badagoela webgune bat bankuekin arazoak izan dituzten 3.000 lagunetik gora batzen dituen. Horra jo eta aurkituko duzue laguntza erreklamazioak nola egin jakiteko: [www.noclip.com](http://www.noclip.com)

A.B.B. ©

### Maiatzak 15, Iruñan: Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidearen alde

Legegintzaldia hasi berri zela Gobernuak Euskarabidea sortu zuen, euskararen hizkuntza politika aldekoagoa eginen zuela irudikatu nahian. Euskararen alde lanean dihardugun agente guztiok, alde edo molde harremana eduki dugu alderdi politiko guzti-guztiekin. Esaterako, Topagunekook, azken bi urteetan hoge bi bilera baino gehiago egin ditugu guztiekin. Behin eta berriz joan gara jarrera ezin eraikitzaileagoarekin: herri ekimena eta administrazioa elkarlanean aritzearen aldekoak gara eta.

Denbora pasa ahala, Gobernuaren jokaera agerian geratu da: Euskarabidea

sortzea distrazio maniobra izan zen, betikoan segitzeko: euskaldunoi egurra.

Manifestazioa, besteak beste, honetarako antolatuta dugu: Gobernuari eta sostengatzen dutenei, aski dela adierazteko; asko gabela orain eta etorkizunean Nafarroan euskaraz bizi nahi dugunak erakusteko; euskaldunon kontra hartzen dituzten erabakiekin gure amorrua kanporatzeko; bat egiten dakigula eta antolakuntzarako gaitasuna dugula frogatzeko; eta noski alderdi politiko eta bestelako eragileen agendan eragiteko. Premiazkoa da berdintasunera eramango gaituzten legeak onartzea eta euskara sustatzeko baliabide ekonomiko nahikoak jartzea. Horren alde lehentasunez lan egitea eskatzen diet euskararen alde daudela dioten alderdiei, beharko dituzten aliatuekin negoziatu beharreko guztia negoziatu dezaten.

Izan ere, aniztasuna eta pluralismoaren kontrako diskriminazioa da, nafar herritarrek euskararen garapeneren alde egiten dugunean maizegi pairatzen duguna. Pertsonon eskubideez ari gara, politikaren aurretik dauden eskubideez. Pertsonak gara betebeharrak eta eskubideak ditugunak, pertsonak gara diskriminazioa jasotzen dugunak. Nafarrak gara betebeharrak berdinak izanik, Leitzañan espainola ikasteko betebeharrak dugunok, eta Mendigorrian euskaraz ikasteko eskubidea ez dugunok.

Gonbidatuta zaude.

**Oskar Zapata Solano**  
Nafarroako Topagunea,  
Euskara Elkarten Federazioa ©

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:





**Justo Arriola**

Zer derit-  
tzok Lerun  
Txiki hizpi-  
de har-  
tziari, Pi-  
ru? Ixa 30  
urtian biha-  
rrezkotzat sal-  
tzen jiharduen in-  
dustrigune hori he-  
mengo faraoei –Pedro Mu-  
guruzan ikasliak– bururatu jakuen  
proiektu txikitzailliena dok.


Gaztienak ez juek jakingo Deba ibaixari kilometro bat lapurtu nahi jauela hamabi futbol zelairen zabalerako urbanizazioa egiteko. Hurrengo ufaletan Altzolan gertatu zeikianak ez jauen sekula lorik kendu. Meandruaren zeregiña? Baserrixak, bizilagunak eta haritxixa bota bihara? Ingurumenari kaltia? Ka! Erremintta makiñaren hiriburuan ez dagok lekurik maillasunarentzat.

## “Ehunen bat lagunek errekurtsua aurkeztu juagu Lerun Txiki baserrixak tente segittu deixan”

Ba, ezker abertzaliak eta Gazte Asanbladak baiño ez juen aurre egin. Garapenaren etsaiak danari ezetz esaten, jakiña. Udal batzararetoke amaraunak ere dardarka geratu zittuan plana onartu juen 1995eko urriko atsalde haretan: gaztiak, aulkixak eta munizipalak lurrian zihar bueltaka “Deba ibaia osoa eta garbia” zioen pankartiagaittik.

Baiña Eusko Jaurlaritzako sail batek esan jauen errekia ezin zebela moztu. Eta urte batzuk geruago Morterikako baso autoktonua babestu biharrekua dokela. Gasteizko burokratak ez dittuk ba ekologista erradikalak izango? Pentsaik zelako astakerixia egittia nahi juen.

Udalaren webgunian Lerun Txiki baserrixaren argazkixa ezabatu deben arren, ehunen bat lagunek errekurtsua aurkeztu juagu etxe galant horrek tente segittu deixan, eta ondoko soruan zeozer egitekotan, herrirako ortuak izan daittien. Orainguan ere ez juek harrapau!



**Arkaitz Irureta**

Gaztia izan arren akordatzen nauk, bai jaina. Erreka moztian negoziua ikusi ziaten, baiña atzamarrak harrapatu bertan!. Ondoren, Lerun Txikiko industriguniari tokatu jakon, baiña dioken bezela, hasierako planaren zati handi bat ere alderdikoez galarazi juen, ataraitzak kontuak.

Halere, penaz ikusi juat HAPO berrixan Ballegoitxi, aspaldi atzera bota juen industrigunia, berriz ere mahai gaiñera atara diatela. Ez ote dittuk berriz ere San Migel-Aiastiara errepide berrixa planeatzen ibilliko, Morterika ixa ikutu gabe daguan azkenetako bai-llaratik barrena?

Kuriosua dok. Hainbeste industrigune, eta ikerketa bat bera ere ez dok mahai gaiñian ageri. Sikira burua zuritzeko, betiko enpresa hórrek eginiko ikerketa bat aurkeztuko balute...

## “Hauteskundeak gaiñian daguaz, eta gizurra ‘biZi-biZixa’ egoten dok Elgoibarren”


Elikadurakin gero eta jende gehixago dagok kezkatuta, begetariano, makrobiotiko, naturista eta abar. Argi dagok hemen zerbaittek okerreko bidia daramala, eta nere ustez, ez dok soilik elikadura kontua, baiña naturara gerturatzen hasteko, herritarrentzako ortuak egitia ondo legoke, auskalo nundik eta nola ekoiztutako produktuak jan biharrian!

Lur sail hoberenak industriara eta infraestrukturataro bideratzen diran bittartean, ez jakixat adarra jotzearen edo, "Elgoibar berdea" irakurri ahal izan juat prentsian. Pleno aretua berdez pintxau juek, eta kitto!

Ah, hauteskundiak gaiñian daguaz, eta *Elgoibarren gizurra biZi-biZixa* egoten dok garai hónetan ere.



Elgoibarko Udala



## Motordun 38 ohe jarri dituzte San Lazaro egoitzan, eta Eguneko Zentrorako beste furgoneta bat erosi dute

Egoitzatik kendu dituzten hamabost ohe Kongora eramango dituzte

San Lazaro egoitzarako motordun 38 ohe eta Eguneko Zentrorako furgoneta berria erosi ditu Udalak. 100.000 euroko diru laguntza eman zion Kutxak Udalari, eta diru horren laguntzaz egin ahal izan dituzte gizarte zerbitzuetako berrikuntzak. Furgoneta berria 43.217 euro ordaindu dute, eta horietatik 35.000 euro Kutxak jarri ditu. Eguneko Zentrorako erabiltzaileak etxetik zentrorara eta zentrotik etxera eramateko erabiliko dute ibilgailu berria. Furgoneta zaharrari beste erabilpen bat emango diotela aurreratu du Alfredo Etxeberria alkateak, baina oraindik ez du argitu zertarako erabiliko duten.

Kutxak emandako beste 65.000 euroak San Lazaro egoitzako berrikuntzak egiteko erabili dituzte, eta motordun oheez gain, gaitxoak batetik bestera mugitzeko garabi bat eta megafonia zerbitzua ere erosi dituzte. Bestalde, egoitzatik kendu dituzten hamabost ohe Kongora bidali dituzte, Tomas Madinabeitia apaizaren laguntzarekin.

### Eguneko zentroan berrikuntzak

Eguneko Zentroan ere berrikuntzak egin dituzte. Obren kos-



tua 76.314 eurokoa izan da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 57.145 euro jarri ditu. Handitze lanen ostean, zentroak hogeit hamar lagunentzako lekua dauka, lehen baino bost gehiagorantzako. Gaur egun, hamazazpi lagunek erabiltzen dute zentroa, eta hiru leku daude libre.

## Osasun Zentrorako gaueko larrialdi zerbitzua kendu egingo dute



Ekainaren 5etik aurrera ez da larrialdi zerbitzurik egongo gauez, Elgoibarko Osasun Zentroan. Hortaz, gauerditik aurrera larrialdi zerbitzuetara joan beharra dutenek Mendaroko Ospitalera edo Eibarko anbulatoriora jo beharko dute zuzenean. Era berean, krisiari aurre egiteko eta gastuari eusteko helburuarekin 46 anbulategi (104 daude Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban) zapatuetan ixteko proposamena aurkeztu die Osakidetza sindikatuei. Elgoibarkoa, momentuz, zabalik egongo da.

## Maria Mortalenari omenaldia egin diote Altzolan

Maria Mortalenak Altzolako jubilatuen egoitzako presidente kargua laga du, eta omenaldia egin zioten, urteetan zehar egindako lanagatik. Bazkaria egin zuten zahar etxean, eta giro ezinhobean pasatu zuten eguna. Izaskun Irastorzak beteko du Maria Mortalenak lagatako lekua aurrerantzean, eta Altzolako jubilatuek zorte-rik onena opa diote kargu berrian.





## Izena **Arnaldo Otegi**



Arnaldo Otegi libre uzteko eskatzeko asmoz, Politika askatu, Arnaldo askatu plataforma sortu dute Elgoibarren. Hiru helburu nagusi ditu plataforma horrek epe laburrerako: bakegintzan, sigla politikoetatik kanpo dauden herritar askoren partaidetza lortzea; Elgoibarren eta baita Euskal Herrian politikak aukera izan dezan eskatzea, eta Arnaldo eta haren senideei euren hurbiltasuna adierazi eta haren askatasuna eskatzea. Bihar aurkeztuko dute plataforma Plaza Handian, 12:30ean.

## Berbia **Jaunartzea**

85 umek egingo dute lehen jaunartzea aurten, Elgoibarren eta Mendaron. Joan zen domekan 69 umek egin zuten Elgoibarren, bi mezatan. 3. mailan 91 ikasle daude herrian, beraz, ikasleen %75ek egin dute jaunartzea. Mendaron, berriz, 16 umek egingo dute jaunartzea domekan, ikasleen %64k, alegia.

## Irudia **Semana das letras galegas**

Euripean hasi ziren galiziarren jaiak joan zen barixakuan, baina eguraldiak hobera egin zuen asteburuan, eta antolatzaileen esanetan, jende asko ibili da jaietan. Hala ere, datorren urterako "aldaketak" egiteko beharra dagoela uste dute. Gazte jendea, eta batez ere, euskaldunak jaietan parte hartzea nahi dute, eta horretarako, egitarau egokia antolatzen saiatuko dira. Aldatu beharrekoen artean, musika aipatu du Manuel Amaro, Galiza Etxeko presidenteak: "Musika estiloa aldatu egin behar dugu. Orkestra horiek oso garestiak dira, eta Elgoibarren ez daukate arrakastarik. Joan den mendekoak dira". Soka-tira edo antzerako herri kirolak antolatzearen aukera ere aipatu du.



## **Urtebeteko kartzela zigorra Mendaroko ume bati sexu eraso**a egiteagatik

Urtebeteko kartzela zigorra eta 1.000 euroko kalteordaina ezarri diote gizon bati Mendaroko 13 urteko neska bati sexu eraso egiteagatik. Neskaren soinekoa leporaino altxa eta nerabearen gogoaren kontra besarkatu eta muxu emateagatik, hain zuzen ere. Fiskaltzak eskatutako zigorrarekin konforme zegoela adierazi zuen akusatuak epailearen aurrean. Epaiaren arabera, 2008ko uztailaren 24an izan zen eraso, 14:00ak aldera. Erasotzailea etxez etxeko banatzailea da eta neskaren etxera enkargu bat lagatzera joan zen unean eraso zion.

## **Argazki ikastaroa Altzolan**

Zubibai elkarteak natura argazkigintzari buruzko ikastaroa antolatu du. Alicia Gomez argazkilaria izango da irakaslea. Bihar goizean atal teorikoa azalduko du, eta arratsaldean argazkiak ateratzera joango dira, bainuetxe ingurura. Domekan, argazkiak ikusi eta tratatu egingo dituzte. Zubibaiko kideentzako doan izango da ikastaroa, eta gainerakoek 10 euro ordaindu beharko dute. Informazio gehiago, 635 199 151 telefonoan.

## **Hilaren 20an bukatuko da Elgoibarko pintxo lehiaketan izena emateko epea**

Elgoibarko II. Pintxo Lehiaketan izena emateko epea maiatzaren 20an amaituko da, arratsaldeko 15:00etan. Ostalaritza sektorea sustatzeko asmoz antolatu du lehiaketa Udalak, eta ekainaren 24an eta 25ean egingo dute. Euro baten truke pintxoak dastatzeko aukera izango dute herritarrek, eguenean 19:00etatik aurrera, eta barixakuan eguerdian eta arratsaldean, Interesatuek 943 741 050 (Oihana edo Iker) telefonoan eskuratu dezakete informazio gehiago.



**San Frantzisko kalean zakarrontziak kendu dituzte:** “San Frantzisko kalean zeuden zakarrontzi asko kendu egin dituzte, eta orain, King-Kong ingurutik Madalara arte ez dago zakarrontzirik. Kaleak garbi nahi ditugu, eta horretarako, erraztasunak jarri behar dira iruditzen zaigu. Lan handia ez bada, behintzat, eskertuko genuke kendu dituzten zakarrontziak berriro jartzea. Mila esker”.



**Sigman dagoen oinezkoentzako zubia oso egoera txarrean dago:** “Sigma auzoa, oro har, ahaztuta dauka Udalak, eta horren adibide da oinezkoentzako zubia. Barandak erabat herdoilduta daude, eta zubia bera ere oso zahartuta dago. Udalak ez du Sigma auzoa zaintzen. Eskailera mekanikoak jarri dituzte, baina hori ez da nahikoa”.



**Txalo handi bat Haundiri:** “Izenak dioen bezala, handia da Haundi. Bigarren urtez jarraian *Play Off*-etan sartzea lortu du. Inork gutxik espero zuena lortu du taldeak, 3. mailako aurrekontu txikienetakoarekin. Zorionak, mutilak, eta segi horrela! Aurten mailaz igotzea lortuko duzue!”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943 744 112

I. URTEURRENA



**MARIA MAIZTEGI AGIRREGOMEZKORTA**

2009ko maiatzaren 23an hil zen.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, maiatzak 15, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



ESKERTZA



**SANTOS LIZARRITURRI ARRIETA**

2010eko maiatzaren 5ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# JOSEBA ETXEBERRIA

**Semea, laguna, aita, kapitaina, urrezko botaren jabea eta aldagelako 'oilarra'. Hori eta gehiago da Joseba Etxeberria (Elgoibar, 1977). Real zaleen eta Athletic zaleen arteko haustura eragin zuena zenbaiten ahotan, eta be-launaldi baten ikur zuri-gorria beste askoren hitzetan. Hitz gutxikoa, baina gol errazekoa. Zapatuan esango du agur, ofizialki, San Mamesen.**

Ezer handirik jokatzeko ez duzuela iritsi zarete ligako azkeneko jardunaldira. Igandean Deportiboren kontra jokatu duzuen partidak baino astelehenean jokatu duzuen partida berezi horrek hartu du oihartzun handiagoa prentsan. Nola bururatu zitzaizuen ideia hori?

Partida berezi bat antolatu zitekeela esanez etorri zitzaizkidan Athletic Fundaziokoak aspaldi, eta ideia polita iruditu zitzaidan. 200 umek San Mamesen Athleticen kontra jokatzeko aukera izango dute, eta biltzen den dirua Kongorako izango da. Ez dakit gogoan daukazu, baina hango ume talde baten bideoa telebista kate guztietan agertu zen. Athleticen ereserkia abestu zuten, eta orain, futbol zelai bat egin nahi dugu han eurentzat. Sarrerei prezio simbolikoa jarri diegu [euro bakar bat], gure asmoa ahalik eta jende gehien batzea delako. Nik uste dut partidak erakargarria izango dela.

**Astelehenean izango da, hilaren 17an. Zuk ere zenbaki horrekin jokatzeko duzu. Kasualitatea da, edo nahita egindakoa?**

Geuk erabakitako kontua da. 17a zenbaki berezia da niretzat, eta gainera, liga bezperan amaituko da, beraz fetxa hori libre zegoen.

**Estatistiketako zure zenbakiak denak dira bereziak. Jose Angel Iribar eta Txetxu Rojoren atzetik Athleticen partida gehien jokatu duen jokalaria zara zu. Zer eman dizu Athleticetik?**

Hamabost denboraldi izan dira, hamabost urte zoragari. Bai profesional moduan eta baita pertsona moduan ere asko jaso dut hemen, eta lehenengo momentutik oso gustura egon naiz. Askok estimatzen dut Kluba, eta zer esanik ez taldekideak. Ehun urte baino gehiagoko historia daukan talde batean partida gehien jokatu duen hirugarren jokalaria izatea handia da niretzat. Museora argazki bat ateratzera joan ginen egun batean jabetu nintzen lortutakoaz. [Jose Angel] Iribar, [Txetxu] Rojo eta hiruroi egin ziguten argazki hura, eta orduan konturatu nintzen futbolearen eta Athleticen egindakoa.

**Ez dugu esango zaharra zarenik, baina, itxuraz, futbolerako ez zara horren gaztea ere. Aldiz, mitoa izateko gazteegia, beharbada?**

Oraindik 32 urte dauzkatz, eta jokatu ahal izango nuen oraindik futbolearen, baina oso gazte hasi nintzen, 17 bat urterekin, eta iruditzen zait hamabost urte asko direla mundu honetan. Ordua da beste batzuei lekua egiteko. Hemendik aurrera, zale moduan disfrutatuko dut futbolaz. Mi-



to izate hori berriz... uste dut asko esatea dela.

**Eta hemendik aurrera, zer?**

Urtebeteko atsedena hartu nahi dut. Urtebete ezer egin gabe egon nahiko nuke, eta gero, entrenatzaile lanari ekitea gustatuko litzaidake, baina ez dakit ez noiz eta ezta non ere.

**Klubean ondo, taldekideekin bikain... Zuk Athleticen entrenatzaile izan nahi duzu! Ikusten duzu Athleticetako Pep Guardiola izateko aukerarik?**

Hori asko izango da, ezta? Hori denborak esango du, baina nire asmoa entrenatzaile hastea da, eta etorkizunean Athletic entrenatzeko aukera eskaintzen badidate benetan albiste pozgarria izango da. Izugarria izango litzateke niretzako, baina urruti dago hori.

**Play off-etarako sailkatu da Haundi ere. 2B mailan hartu ahal izango zenuke taldea...**

*Jajaja.* Egia esan izugarri pozten naiz Haundik laugarren amaitu izanaz. Bi urtez jarraian iritsi dira play off-ak jokatzera, eta horrek erakusten du lan ona ari direla egiten. Hirugarren mailan aurrekontu apalenetakoa dute, eta begira nora arte iritsi diren!. Partidarik ikusteko aukerarik ez dut izan, baina beti jarraitzen dut Haundiren ibilbidea, Internetez-eta. Handia da egiten ari direna. Ea zortea duten, eta igotzeko aukera duten. Gogoan daukat 2B mailan Lezaman jokatu zuten eguna ere. Nahiko nuke berriz errepikatzea.

**Umetan, ikastolan idazlanen bat idazteko agintzen zizueten aldiro, Realaren inguruan idazten ei zenuen. Orain, baina, ematen du sentimendu berezi batek lotzen zaituela Athleticera. Ahaztu duzu Realeko garaia?**

Ez, ez. Egia da Athleticera oso lotua sentitzen naizela, baina ez dut Realeko ibilbidea ahaztu. Realean oso gustura egon nintzen bost urte haietan. Oso entrenatzaile onak izan nituen, eta asko zor diet haiei. Realean ikasitakoa oso baliagarria izan zait Lehenengo Mailan horrenbeste urtean jokatu ahal izateko. Garbi daukat, hala ere, Bilbon jarraituko dudala bizitzen aurrerantzean.

**Hilaren 16an bukatuko da Athleticetako zure ibilbidea, baina nora uste duzu iritsi daitezkeela zure taldekideak?**

Oso lasai joango naiz ni, badakidalako oso talde sendoa lagatzen dudala. Talde gaztea da, baina eskarmentu handikoa, eta harrobien ere oso jokalaririk onak daude. Etorkizun handiko kluba da.

**Gaur egungo filosofiarik utsita ere bai?**

Bai, zalantzarik gabe. Futbolak zein bide hartu duen ikusita, harrobiko lana erabakiorra izango da. Zaleek, gainera, bat egiten dute filosofia horrekin, eta nik uste dut urte askoan utsi ahal izango diogula filosofia horri. Nik neuk nahiko nuke behintzat.

# JOSEBA ETXEBERRIA LIZARDI



Elgoibar (Gipuzkoa),  
1977-09-05  
1,78 m. - 71,3 kg.  
Aurrelaria  
Estreinaldia: 1995-09-03  
Athletic Club 4 Racing 0

## ESTATISTIKAK

### JOKATUTAKO PARTIDAK

Ligan:  
444 partida, 88 gol

Kopan:  
41 partida, 10 gol

Champions League:  
8 partida, 2 gol

UEFAko Kopa:  
18 partida, 4 gol

Superkopa:  
2 partida, 0 gol

### ATHLETIC CLUB-EKO IBILBIDEA:

Hamabost denboraldi egin ditu. Jose Angel Iribar eta Txetxu Rojoren atzetik, Athleticen partida gehien jokatu duen jokalaria da.

513 partida  
104 gol  
0,20 gol partidako

### SELEKZIOEKIN JOKATUTAKO PARTIDAK:

Euskadi:  
10 partida, bi gol

Espainia:  
53 partida, 12 gol



## IRITZIAK...

Jose Antonio Etxebarria,  
aita



Seme moduan zoragarria da. Hori bai, urtebete egin arte ez zuen begirik itxi gauetan, eta ez zigun lorik egiten laga. Bestela, baina, ez digu inongo arazorik eman. Ipurterre xamarra zen, hori bai. Ez zen geldi egotekoa. Eskolan ez zen punterengoa, baina marrazketan eta eskulanetan, adibidez, oso ondo moldatzen zen. Behin futbolin bat egin zuen, primerako futbolina, iltzeekin eta takoeekin. Futbolerako zaletasuna, berriz, etxetik datorkio. Aitona, nire aita, futbolaria zen; ni ere bai, eta nire anaia ere bai. Egunero joaten nintzen semearekin entrenatzera. Ni neu alfer xamarra izan naiz beti futboleant, eta nire antzekoa irten ez zedin, atletismoan apuntatu nuen semea, banekielako futbolari ona izateko korrika egin beharra zegoela. Gogoan daukat San Pedron irabazi zueneko eguna. Bestela, gorpuzkeraz eskas xamarra zen. Atzo bertan kazetari bati esan nion erdi brometan: "Hau Realean hasi zenean 36 kilo zen. 36 kilo, baina aurrez uretan sartuta". Umetatik ikusten zizaion futbolari ona izango zela. Bere adinekoen artean aldea igartzen zen. "Arantxa, hau futbolari irtengo da", esan nion behin emazteari, eta "fantasma" deitu zidan. Karakter alde-tik, amarena da gehiago, Lizarditarrena. Eta zortekoa da horretan. Plaza gizonetik duena, baina, nirea da. Lagun artean, golfoena bera izango da, dudarik gabe. Komunikabideetan agertzen denean ezagutu ere ez dute egingo askok seguru-seguru. Entrenatzaile izango da futbola lagatakoan, eta futbolari bezain ona izango da gainera, futbola bizi duelako. Egun puta osoa futbola ikusten dabil ordenagailuan; berdin zaio zer. "Zer egin du gaur Manchesterrek?", galdetzen dit beti, Haundiari buruz galdetzeko.



Mikel Daquinta,  
Joseba Etxeberria peñakoa



"Athleticen jokatu duen lehenengo elgoibartarra izan da, eta gainera, Athletici eskaini dio bere kirol ibilbide osoa. Klubaren 110 urtetik gorako historian partida gehien jokatu duen hirugarren jokalaria izan da, era berean. Zer gehiago eska diezaiokegu! Athletic zale batentzako Joseba Etxeberria izugarria da. San Mames katedrala bada, Etxeberria Jainkoa da. *San Dios* esaten dena. Txikitatik jarraitu dut haren ibilbidea, beti ere poza ematen duelako elgoibartar bat Lehenengo Mailara iristeak, baina Athleticen hasi zenetik ez diot begirik kendu. Realean hasi zenetik garbi ikusten zen izugarri ona zetorrela, eta erakutsi du. Alde egingo ote zuen beldurra izan dut beti, baina hemen gelditu da, Athletic benetan maite duelako".

Pake Gartzia, irakaslea



"Bosgarren mailan izan nuen ikasle Joseba. Ohiko ikaslea zen, ez zuen destakutzen. Gelan ez zuen inolako arazorik ematen, eta esandakoa ondo betetzen zuen. Esaneko ikaslea zen. 11 urte izango zituen, eta kirolak izugarri gustatzen zitzaizkion. Astero, albiste

bat idazteko agintzen nien ikasleei, eta Josebak astelehenero Realaren asteburuko partidaren emaitza ekartzen zuen. Beste ikasleek gai gehiago jorratzen zituzten, baina Josebak beti Realaren kronika egiten zuen. Iñaki irakasleak ordu hartan ere esaten zuen Joseba futboleant onak zetorrela. Txiki txikitatik igartzen zitzaion".

Jon Zubiaurre, laguna



"Futbolari ona, mus jokalaria aparta eta lagun ezinhobe da. Holakoxea da Joseba. Pertsona oso baikorra da, botela beti erdi beteta ikusten duten horietakoa. Edozeri alde ona topatzeko gai da. Gainera, ingurukoei kutsatzen die bere "txispa" edo baikortasun

hori. Izan ere, umorea berezkoa du, eta alaitasuna zabaltzen du bere inguruan. Ezaugarri horrek, izateko era horrek, zurrerik, asko lagundu dio bere lanbidean, futboleant, eta baita bizitzan ere.



Carlos Gurpegi, jokalaria



"Pertsona alai da Joseba. Nik esango nuke aldagelako alaiena eta txistezaleena bera dela. Beti dabil txantxetan eta ziria sartu nahian. Egia esan ez dauka komunikabideetan ikusten dugun Etxeberria horren antz handirik. Era berean, oso pertsona baikorra da, eta futboleant ere halaxe da. Bizi egiten du futbola. Esango nuke beste inor ez dela joaten Joseba besteko ilusioarekin entrenatzera. Futbola lagatzen duenean ez dakit nik zertan emanango duen denbora. 500. partida jokatu bezperan, esate baterako, ume txiki baten moduan ibili zen. Nik ezin nuen sinisturik ere egin. 500. partida baino gehiago, debuta zuela ematen zuen. Sinisturik ezinekoa zen. Jokalaria ausarta eta bizkorra da, nahiz eta urteekin, normala denez, abiadura apur bat galdu duen. Futbolarako bizi da, eta barruan darama Athletic. Entrenatzaile txarra ere ez litzateke izango, beti dabilelako "hau honela egin beharko genuke" eta halakoekin".

Javier Clemente, entrenatzailea



"Etxeberria historia egin du Athleticen. Legenda bat da talde zuri-gorriaren historian, eta hori ez du edozeinek lortzen. Ehundik gora urteko Klubean jokatu du, eta Athleticen horrenbeste partida jokatu ahal izateko derrigor izan behar da ona.

Etxeberria maila handiko jokalaria da, eta hori inork ez du zalantzan jarriko. Jokalaria on batek izan beharreko ezaugarri asko ditu, baina nik bi aipatuko nituzke: abiadura eta golak sartzeko duen erraztasuna. Badaki bere lekua zein den, azkarra da, eta ausarta, oso ausarta. Area txikia ondo ezagutzen du. Bada beste kontu bat esatea komeni dena. Bere taldea asko estimatzen du. Barruan darama Athletic. Pertsona moduan, zer esatea nahi duzu ba? Tipo jatorra da, eta hori talderako beti da ona. Onena desio diot hemendik aurrerantz.

# Etxebereren berbetan



## 1. UMETAKO ARGAZKIA

"Gurasoek beti esaten didate ibiltzen hasi aurretik hasi nintzela baloiari ostikoka. Betidanik gustatu izan zait futbola, eta zortekoa naiz, afizio hori ofizio izatea lortu dudalako. Bazkaltzen amaitu aurretik kalera jaisteko desiatzen egoten nintzen beti, eta bronka bat baino gehiago entzun behar izan nituen, egia esan". Plaza Txikian ateratako argazkia da. Goian: Jon Barrenetxea, Igor Elizburu, Aitor Gurrutxaga, Oskar Miguel eta Jose Antonio Etxeberria (aita). Makurtuta: Joseba Etxeberria, Jesus Mari Urbieta, Ibon Gabilondo, Danel Fernandez de Jauregi eta Sugar Etxaniz.


## 2. REALEKO DEBUTA

"Momentu hunkigarria izan zen. Oso gazte iritsi zitzaidan Lehen Mailan debutatzeko aukera, 17 urterekin. Artean ez neukan gida-

tzeko baimenik ere, eta Alberto Albistegi eta Lutxo Iturrinorekin jotzen nintzen autoan entrenatzera. Bidean futbola beste gairik ez genuen izaten, eta asko ikasi nuen bidai haietan. Nire umetako idoloa nuen gainera entrenatzailea Realean: Lopez Ufarte. Ikargarria izan zen". Mintxeta inauguratu zuteneko argazkia da. Etxebek sartu zuen Mintxetako estraineko gola.

## 3. QATAR. URREZKO BOTA

"Zirraragarria izan zen. Nik 17 urte nituen orduan, eta mundial hura 20 urtez azpikoena zen. Maila handiko selekzioa genuen: Raul, De la Peña, Michel Salgado... Zazpi gol sartu nituen, eta txapelketa hartako *pichichi* izendatu ninduten. Zer eman nezakeen erakusteko balio izan zidan mundial hark".



#### 4. ATHLETIC-EKO AURKEZPENA

“Momentu zailak izan ziren, baina nik garbi daukat egin beharrekoa egin nuela. Askoz helduago egin ninduen zurrumbilo hark. Nik uste dut denborak arrazoia eman didala”.

#### 5. EUSKADIKO KAMISETAREKW

“Lagunarteko partidak izan arren, oso bereziak izan dira beti niretzako. Sentimendu berezi bat da. Espero dezagun gure selekzioak ofizialtasuna lortzea egunen batean, eta orain lagunarteko partidak diren horiek beste izaera bat hartzea. Nazioarteko txapelketetan parte hartzeko aukera iristen den eguna oso berezia izango da jokalarientzat”.

#### 6. TXAPELDUN LIGARAKO SAILKATZEKO GOLA

“Sekulakoa izan zen. Athleticen mendeurrena zen, eta taldearentzako

oso garrantzitsua zen maila horretako txapelketa batean parte hartzea. Aukerekin iritsi ginen azkeneko jardunaldira, gure partida irabaztearekin nahikoa genuelako Champions-erako sailkatzeko. Oso partida berezia izan zen. Harmailetan sekulako giroa zegoen, eta nire golari esker sailkatu ginen. Ez zait sekula ahaztuko”.

#### 7. ERREGE KOPAKO FWALA

“Sekula ahaztuko ez dudan eguna izan zen. Jakin badakigu Athletic-eko zaleak oso bereziak direla, baina egun hartan garbi gelditu zen zerk egiten duen horren handi Klub hau. Milaka lagun joan ziren Valentziara gu babestera, eta horrek hazi egiten du futbolaria. Penagarria izan zen jende hari guztiari garaipen bat eskaini ezin izana. Nire ibilbidean horixe izan da penagarriena. Hamabost urte zoragarri izan dira, baina ez dut Athleticekin titulurik lortu. Futbola halakoxea da”.

# HARRO2,

## Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeko taldea




HARRO2 taldeko lagunak, Harri Beltzari eusten.

**“Elgoibarren ez dago gazteentzako ezer” edo “tabernak dira gazteek asteburuetan duten aukera bakarra” moduko esaldiak sarri entzun izan dira. Horri irtenbidea emateko asmoz sortu dute HARRO2 taldea. Gazteak, eta aldi berean, gazte mugimenduko eragileak dira HARRO2ko kideak. Euren ustez, Elgoibarren antolatzen dira gazteentzako ekintzak, baina ekintza horiek bateratu egin behar dira. Maiatzaren 21ean aurkeztuko dute taldea, eta herriko gazte guztiak gonbidatu dituzte.**

**E**lgoibarko gazteen eta gazte eragileen topagunea izateko helburuarekin jaio da HARRO2. Gazte Topaketak egitasmoan oinarrituta dago talde honen izaera, eta Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeko asmoz sortu dute. Elgoibarko harrobia direla diote, herriko hainbat harrobitatik

ateratako harri bitxiak, alegia. Elgoibarren harri asko dagoela esan dute, eta harri bakoitzaren ekarpenarekin, haitz sendo bat sortu nahi dute. Hasierako harria jarri dute, baina oraindik bidea egiteko dagoela adierazi dute. “Denontzat izango dena, denon artean sortu nahi dugu”, gaineratu dute.





Taldearen logoa: haitz handia sortzeko harri txikiak.

Orain dela hilabete batzuk hasi ziren taldea sortzeko lanean. Herriko gazte eragile batzuk elkartu, eta Elgoibarko gazteen eta gazte mugimenduaren inguruko diagnostia egin zuten. Ondorio garbia atera zuten: "Elgoibarren badago gazte mugimendua, baina bakoitza bere aldetik dabil". Oro har, Elgoibarren "koadrillismo" handia dagoela uste dute. "Bakoitza bere koadrilan ibiltzen da, baina herrian ez dago gazteen bilgunerik". Era berean, jendeak aurreritzi asko dituela aipatu dute, eta talde guztiek "etiketa" bat dutela. Indarrak batu eta denak batera lan egiteko beharra ikusi zuten, "pluraltasunez eta etiketarik" gabe. Elkarlan horren bidez, talde bakoitzak dituen baliabideak hobeto aprobetxatzeko aukera ikusi dute, eta herrian antolatzen diren ekintzak bateragarriak izatea da euren nahia: "Orain arte, ekintza batek besteari lekua kendu izan dio askotan. Madalan eta Plaza Handian bi ekintza aldi berean jartzeak ez dauka zentzurik". Gazteentzako ekintzak "koordinatuta" antolatu behar dira HARRO2koen iritziz.

## 16 urtetik gora, gazte sentitzen diren guztiek daukate lekua HARRO2n

lazko azaroan hasi ziren bilerak egiten. Lehenengo lana taldeari izena ipintzea izan zen. Kultur Etxeko hitzaldi gelan zeuden bilera batean, eta aldi berean, Gipuzkoako bertsolarien urteroko batzarra zegoen. Amaia Agirrerri eskatu zioten laguntza, eta, "ordu laurdenean 38 izen bota zizkigun". Harrobi gustatu zitzairen gehien, eta gazteak direnez, gazte hizkerara moldatu zuten izenaren grafia. Taldearen izaera ondo deskribatzen duela, eta gainera, ikasteko ere erraza dela iruditu zitzairen. HARRO2: lehenengo harria jarrita zegoen, beraz.

Hasieran gazte gutxi batzuk biltzen ziren, baina ekin diote bideari, eta dagoeneko harri gehiagorekin egin dute topo bide horretan. Mauxitxa txarangako kideak, Elgoibarko Izarrakoak, Gazte Asanbladakoak, Haritz euskal dantzari taldekoak, baserriar gazteak edo Morkaiko elkarteak osatzen dute HARRO2, baina inolako taldeetan ez dabilten gazteak ere badaude taldean. Argi eta garbi utzi dute taldekideek edozein gazteak daukela lekua HARRO2n. 16 urtetik gora, gazte sentitzen diren guztiak bildu nahi dituzte: baserri girokoak edo kalekoak, mendizaleak, eskubaloi zaleak, handiak edo txikiak... "Denek daukate lekua".

Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeaz gain, gazteen eta gazte eragileen topagunea izan nahi du: gazteek dituzten kezkek, ideiak, beharrak, arazoak, ametsak edota ilusioak jaso, eta horiei irtenbidea eman nahi die HARRO2k. Azken batean, herrian antolatzen diren ekintzak gazteen gustukoak eta gazteen parte-hartzearekin antolatzea nahi dute: "Hori oso garrantzitsua da. Askotan ekintzak antolatzen dira, eta gero ez da inor joaten. Hori oso frustrantea da". Horrelakoak gehiago gertatu ez daitezten, gazteen ahotsa kontuan izango du HARRO2k.

Hasi baino ez dira egin, eta oraindik ez daukate funtzionamendu zehatzik. Martxa hartu ahala erabakiko dute taldearen dinamika, baina argi daukate aurrera egiteko jaio dela HARRO2. Gazteen ekarpenak nahi dituzte, jendea taldeko partaide izatea, eta aldi berean, sortzaileak izatea: "Ez dugu nahi jendea gurera etortzea, hori ez da kontua. Jendea taldeko parte izatea nahi dugu. Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez, denok gara HARRO2".

### AURKEZPEN EGUNEKO EGITARAUA

#### MAIATZAK 21, BARIKAKUA

- ▶ 19:00 Prentsaurrekoa Plaza Handian
- ▶ Ondoren, txaranga poteoa
- ▶ 21:30 Afaria Madalako parkean
- ▶ Jarraian, karaokea

✦ Afarirako txartelak Lanbroa tabernan erosi daitezke, 5 eurotan.

### TALDEAN PARTE HARTZEKO

[gaztiokharro2@gmail.com](mailto:gaztiokharro2@gmail.com)



“Kalitatezko telebistaren alde eta telezaborraren kontra egiteko” telebistarik gabeko eguna izendatu zuten astelehena hainbat elkartek.

## Pasatuko zenuke egun bat telebistarik gabe?



**Sonia Arriola**  
41 urte, optikoa

Bai, lasai asko, gainera. Denborarik ere ez daukat, eta ez dut askorik ikusten. Gauetan jartzen dut apur batean, baina bestela ez diot jaramon handirik egiten. *El Conquistador* saioa ikusten dut bakarrik. Berandu amaitzen da, eta gehienetan grabatu egiten dut gero ikusteko.



**Vanessa Armentia**  
35 urte, irakaslea

Bai, egun bat eta astebete ere arazorik gabe pasatuko nituzke telebistarik gabe. Bazkalostean eta gauean ikusten dut apur bat, baina gutxi. Oporretan ere egon naiz ezer ikusi gabe, eta primeran gainera. Zabor asko dago, baina tarteka izaten da zerbait. Sexta ikusten du nik.



**Josu Goñi**  
38 urte, konpontzailea

Bai, bai. Kendu ez nuke egingo, baina pasako nituzke egun batzuk telebistarik gabe. Egia esan gure etxean beti egoten da piztuta, bakoitzak bere gustukoa ikusi ahal izateko. Orain TDTarekin kanal ugari ikusten dira, baina, egia esan, gano-razko programa gutxi daude.



**Jose Leon**  
72 urte, jubilatua

Nik uste dut baietz. Irratiarekin nahikoa dut nik. Hogeitik gora kanal ikusteko zerbait kontratatu berri dugu, baina uste dut lehen baino gauza gutxiago daudela ikusteko. Ez dago balio duen ezer. Futbol partidaren bat eta zezenketa bat edo beste ikusten ditut; besterik ez.

### ESKERTZA

## MIREN MIRARI BERISTAIN ALVAREZ

2010eko maiatzaren 12an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



### ESKERTZA

## CIRIACO LEIZABE LOYOLA

2010eko maiatzaren 10ean hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Jose Manuel Esnalen kartelak iragarriko du Trinitateetako danborrada

Maiatzeko azken asteburuan ospatuko dira Trinitateak

**J**ose Manuel Esnalen lan bat saritu dute Trinitate jaietako nagusien danborrada iragaritzeko kartel lehiaketan. Bosgarren aldiz antolatu du aurten kartel lehiaketa danborradako batzordeak, eta badirudi Esnalek lehiaketari neurria hartu diola: 2007an eta 2008an ere berak irabazi zuen, eta aurtengoa hirugarren garaipena izan da. Zortzi lan aurkeztu zituzten lehiaketara. Esnalek 300 euroko saria jaso du.

Trinitate jaiak maiatzeko azken asteburuan ospatuko dira, eta hilaren 29an izango da nagusien danborrada, 00:00etan.



### Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finala, bihar

Haritz dantza taldeko dantzariak bihar jokatu dute Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finala, Erreterian. Mutiletan, sailean Aitor Asenjo izango da elgoibartar bakarra. Nesketan, berriz, Leire Moralesek eta Saioa Marcosek hartuko dute parte 7 eta 11 urte bitartekoen sailean. 11 eta 15 urtekoen artean, berriz, Ane Espilla, Arantxa Ferreiro, Andrea Arregi, Alaitz Egaña eta Iraitz Gonzalez lehiatuko dira.

### Andraderen erakusketak Ermuan, Iruñean, Santiagon eta Leonen

Ermuko Lobiano jauregian jarri du erakusketa Arturo Andrade elgoibartarrak. Egurrezko eta brontzezko 19 eskultura jarri ditu ikusgai, eta baita berak eginiko bost biolin ere. Hilaren 16ra arte egongo da zabalik. Horrez gain, Xacobeoaren inguruan Caixa Galicia antolatutako 'A pie de arte' talde erakusketan ere parte hartuko du Andradek. Hortaz, Iruñean, Santiagon eta Leonen ere ikusi ahal izango dira bere lanak.

## Jon & Sugramas taldeak maiatzaren amaierarako aterako du disko berria



Jon & Sugramas taldeak hilabete amaieran kaleratuko du bere lehen diskoa. Hamarka abestiz osatutako lana izango da. Musika estiloari dagokionean, taldea 60ko hamarkada amaieran eta 70eko hamarkada hasieran oinarritzen bada ere, musika garaikidea ere egiten dute. Diskoa kaleratu bezain laster kontzertuak eskaintzen hasiko da taldea: lehenengoa Durangon izango da, maiatzaren 29an. Ekainaren 12an Markinan izango dira, 19an Ondarroan eta ekainaren 29an, Eskoriatzan. Arima Beltza taldeko abeslari eta Uek taldeko bateria jole izandako Jon Gurrutxaga elgoibartarraren proiekturik berriena da Jon & Sugramas. Elgoibartarrekin batera, Legen Beltza taldeko Ekaitz Garmendia eta Ivan Hernandez azpeitiarrak dira gitarra jolea eta bateria jolea, eta Andran taldeko Andoni Mujika elgoibartarra baxu jolea.

### Asturiasera irteera, Haizea emakume taldearekin

Haizea emakume taldeak Asturiaserako bidaiak kulturala antolatu du uztailerako. Xixon eta Oviedo bisitatuko dituzte. Uztailaren 10ean joango dira, eta hurrengo egunean bueltatuko dira etxera. Elkarteko bazkideek 165 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 170 euro. Bidaiak, hotela, bi bazkari eta museoetarako sarrerak sartzen dira prezioan. Dagoeneko 25 lagun inguruk eman dute izena, eta gehienez, 50 lagunentzako lekua dagoela esan dute antolatzaileek. Beraz, izena lehenbailehen emateko gomendioa egin dute. Interesatuak Pitxintxu dendan (943 743 206) eskuratu dezakete informazio gehiago.

## Luancoko (Asturias) Marino taldearen kontra jokatuko du Haundik 'play off'-etako lehenengo partida

Joaneko partida bihar jokatuko dute Mintxetan, 17:30etik aurrera

Luancoko Marino taldearen kontra jokatuko du Haundik Bigarren B mailara igotzeko lehenengo partida. Elgoibarren jokatuko dute joaneko partida, bihar, 17:30ean, eta Asturiasen, Luancon, itzulikoa, datorren astean. Kluba, oro har, pozik dago lehenengo kanporaketa honetan tokatu zaion aurkariarekin. Jagoba Arrasate entrenatzailearen esanetan, lehenengo kanporaketa gainditzea da taldearen helburua, eta horretarako aukerak badituztela uste du.

Bestalde, Luanco gertu xamar dago, eta herritarrek animatzera joateko aukera ere izango dutela uste du Arrasatek. Senide eta zaletuentzako autobusa antolatzeko lanetan ari direla azaldu du.

Bigarren urtez jarraian lortu du Haundik Bigarren B mailarako igoera fasean sartzea. Amorebietaren kontrako partida



hutsean berdinduta amaitu zuten zapatuan, eta hori nahikoa izan zen Bigarren B mailarako igoera fasean sartzeko. Igoera fasea jokatzeke laugarren postuari eutsi behar zion, eta horretarako hiru puntuak eskuratzea ezinbestekoa zen. Haundik ez zuen irabazterik lortu, eta beste taldeen emaitzen zain egon behar izan zuen. Emaitzak, azkenean, Haundiren aldekoak izan ziren, laugarren postuagatik borrokan ari ziren Beasainek eta Gernikak huts egin zuten-eta. Haundik, beraz, laugarren postuan amaitu du liga txapelketa, 65 punturekin.



### Elgoibarko Mendi itzulia antolatu dute biharko

Elgoibarko mendi itzulia antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak, biharko. Plaza Handitik irtengo dira mendizaleak 6:00etan, eta Elgoibar zeharkatuko dute mendiz mendi. Karaktera igo, eta Irukurutzetara joango dira. Otxortian indarrak berreskuratu ondoren, Azkaraterantz abiatuko dira. Handik, Urnobitzara, eta gainez gain ibili ostean, Altzolara jaitsiko dira. Ibilbidearen bigarren zatiari ekingo diote Altzolan: Bi Oinera igo eta Aiastia-San Migelen egingo dute bigarren atsedendia. Handik, Morkaiko eta Kalamua igoko dituzte, eta ondoren, Elgoibarrera jaitsiko dira. Mendi itzulia amaitu ostean, nahi dutenek Merkatu Plazako azken solairuan bazkaltzeko aukera izango dute. Oraindik izena eman ez dutenek, irteeran bertan ere badute aukera. Morkaikoko bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 15 euro.

### Elgoibar Herriarteko Pilota txapelketatik kanpo geratu da

Andoainen kontra 3-0 galdu zuen joan zen astean Elgoibarko Lagunak taldeak, eta, ondorioz, Herriarteko Pilota Txapelketatik kanpo geratu da. Joaneko kanporaketan 2-1 galdu zuten, eta itzulekoan 3-0. Azken emaitza, beraz, 5-1. Elgoibarrek, hortaz, ez du lortu final zortzirenetatik pasatzea, eta agur esan dio txapelketari.

# Hiru elgoibartar eta mendaroar bat Anbotoko kilometro bertikalean

Iñigo Lariz izan zen lehenengo elgoibartarra

**M**orkaikoren izenean hiru elgoibartarrek eta mendaroar batek hartu zuten parte zapatuan Anbotoko kilometro bertikalean. Horien artean, Iñigo Lariz izan zen lehenengoa, eta sailkapen nagusiko 17. postuan amaitu zuen proba, 46:47 denborarekin. Haritz Arrieta 21. postuan sailkatu zen, 47:05 denborarekin, eta hirugarrena Gortzon Zulaika mendaroarra izan zen. 51:43 denborarekin, 51. postuan amaitu zuen lasterketa Zulaikak. Azkenik, Eduardo Uribe 119. postuan iritsi zen helmugara, 57:41 denborarekin.

Guztira, 187 mutilek eta 19 neskak hartu zuten parte, eta Nerea Amilibiak (50:16) eta Didier Zagok (39:28) irabazi zuten. 3,8 kilometroko ibilbidean 10,92 kilometroko desnibela gainditu behar izan zuten korrikalariak.




## Mailaz igotzeko garaipen garrantzitsua lortu du areto futboleko Concepto Createch taldeak

Areto futboleko Concepto Createch taldeak 4-2 irabazi zion Clinica Aldaz taldeari, eta garaipen horri esker, mailaz igotzeko aukera dauka oraindik. Bi jardunaldi falta dira areto futboleko denboraldia amaitzeko, eta lehenengo postua lortzea ezinezkoa izango den arren, Concepto Createch taldeak bigarren postua eskuratu dezake oraindik. Hurrengo partida Goierri taldearen kontra jokatuko du, eta irabaztea ezinbestekoa izango du.

## Seigarren postuan amaitu du Unai Narbaizak Martin Fizen omenezko lasterketa

Unai Narbaizak seigarren postuan amaitu zuen Martin Fizen omenezko lasterketa. Elgoibarko korrikalariak 2:39:11 denbora behar izan zuen 42 kilometro eta 195 metroko proba osatzeko. Gogor entrenatu du Narbaizak Gasteizko probarako, eta lortutako emaitzarekin oso gustura geratu dela adierazi du. "Orain arteko markarik onena izan da", esan du korrikalariak. Azaroan Donostia-ko maratoian hartuko du parte.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Amorebieta 0 – Haundi 0 (3. maila)  
Elgoibar 3 – Zestoa 2 (Erreg.)  
Elgoibar 1 – Anaitasuna 5 (Jub.)  
Elgoibar 2 – Trintxerpe 0 (Kad. A)  
Elgoibar 4 – Aretxabaleta 7 (Kad. B)  
Elgoibar 4 – Urola 0 (Inf.)  
Añorga 4 – Elgoibar 1 (Txiki)  
Elgoibar 2 – Eibar 3 (Aleb.)  
Bergara 1 – Elgoibar 3 (Neskak)

### ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa  
Lagunak 16 – Bergara 22 (Nag.)  
Aretxabaleta 2 – Lagunak 22 (Kad.)  
Lagunak 16 – Eibar 22 (Nag.)  
Herriarteko txapelketa  
Elgoibar 15 – Andoain 22 (Kad.)  
Elgoibar 5 – Andoain 22 (Jub.)  
Elgoibar 17 – Andoain 22 (Nag.)  
Elgetako 4 1/2  
Atxotegi 22 – Urbieta 16 (Nag.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 4 – Clinica Aldaz 2

### ESKUBALOA

Tecnifuelle Elg. 21 – Ereintza 12 (Sen. nesk.)  
Loiola Deusto 26 – Alkorta Elg. 29 (Sen. mut.)  
Pulpo 18 – Grupo Eibar Elg. 29 (Jub. nesk.)  
Soraluze 22 – Beristain Elg. 33 (Jub. mut.)  
IMH Elg. 15 – Leizaran 12 (Kad. nesk.)  
Talaiepe 23 – IMH Elg. 19 (Kad. nesk.)  
Usurbil 37 – Lauko Elg. 20 (Kad. nesk.)  
Lauko Elg. 16 – Ayala 21 (Kad. nesk.)  
Pneumax Elg. 19 – Pulpo 22 (Kad. mut.)  
Ikus Elg. 29 – Pulpo 13 (Inf. nesk.)  
Udarregi 12 – Aterpe Elg. 10 (Inf. nesk.)  
Pulpo 24 – Aterpe/Ikus Elg. 19 (Inf. nesk.)  
Bankoa Elg. 24 – Udarregi 19 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 15  
12:30 Elgoibar – Lengokoak (Inf. Txiki)  
17:30 Haundi – Marino Luanco (Igoera fasea)  
Domeka, 16  
15:30 Elgoibar – Urola (Neskak)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 15  
15:30 Beristain Elg. – Arrate (Jub. mut.)  
17:00 Grupo Eibar Elg. – Amaña (Jub. nesk.)  
18:30 IMH Elg. – Urmieta (Kad. nesk.)  
20:00 Alkorta Elg. – Corazonistas (Sen. mut.)  
Domeka, 16  
11:00 Lauko Elg. – Egia (Kad. nesk.)  
12:30 Aterpe/Ikus Elg. – Leizaran (Kad. nesk.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **666 008 974**
- Neska nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Gauzez. ☎ **646 821 678**
- Mutila baserrian edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Mutila lanerako prest. Igeltsero, sukaldari laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ **688 647 664**
- Neska nagusiak zeintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Edozein ordutan. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Mutila lanerako prest. Igeltsero, sukaldari laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ **638 344 377**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **661 055 055**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **636 956 366**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... Interna edo orduka. ☎ **648 736 067**

- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko, sukaldari laguntzaile aritzeko... Interna edo orduka. ☎ **638 899 860**
- Bikotea baserrietan nagusiak zaintzeko prest. ☎ **677 575 370 / 655 152 901**
- Emakumea nagusiak zaintzeko edo portalak garbitzeko prest. ☎ **677 575 370**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **649 044 223**

**ESKAITZA**

- Jatetxe batek asteburueterako zerbitzaria behar du. ☎ **943 121 262**
- Zerbitzaria behar da. ☎ **686 617 439**

**ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK**

**ALOKAIRUA ETA SALMENTA**

- Etxea alokatzen dut Mintxetan. ☎ **669 627 655**
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. Hiru logela. 525 euro, gastuak barne. ☎ **629 314 242**
- Pisia salgai, Basarten. 77m2. Eguzkitsua, eta egoera onean. Garajearekin. Aukera ona. ☎ **647 372 033**

- Etxea salgai Elgoibarko erdigunean. Eguzkitsua, eta logela guztiak kanpoaldera begira. Bi logela eta egongela. Berritua. 133.000 euro. ☎ **620 748 635**
- Etxea salgai. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Berritua. Sukalde handia, bi logela eta egongela. Prezio onean. ☎ **699 209 844**
- Apartamentua daukat alokatzeko, Errosario kalean. Sukaldea, komuna, egongela, logela eta despentsa. ☎ **653 863 482**
- Etxe merkea salgai. Berrituta, berogailuarekin, oso egoera onean eta bizitzera sartzeko prest. 19 milioi pezeta. ☎ **679 155 980**

**GARAJEAK ETA MOTORRA**

- Garaje itxia alokatzen da Jausoro Plazan. Udaletxetik gertu. ☎ **628 764 686**
- Karabana salgai. Egoera onean, oso ondo zainduta. Bost plaza, bi aterpe, bainu kimikoa, irauiezina. ☎ **679 729 194**

**BESTELAKOAK**

- PHmetroa galdu nuen asteazkenean, Ikastola inguruan. Uraren konduktibitatea neurtzeko aparatua da. Urdina da, eta hiru kable ditu. Ordaintzeko prest nago. ☎ **696 856 485**

**OHARRA:**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

**MODULOAK**

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
<b>Astebete : 5 euro</b>	<b>Astebete : 10 euro</b>
<b>2 aste : 8 euro</b>	<b>2 aste : 17 euro</b>
<b>3 aste : 10 euro</b>	<b>3 aste : 25 euro</b>



**Lanbroa**

**Gosariak  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



Ileapaindegia · Estetika · Solarium-a

**Idama**

Apirilko irabazlea:  
**IZARO**

Maiatzeko saria:  
**ORRAZKERA,  
MAKILAIA,  
AZAZKALAK LIMATZEA  
ETA ESMALTATZEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26



• Zorionak, **Joane**, maiaztaren 9an urtetxo bat egin zenuelako. Patxo bat.



• Zorionak, **Elsa**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Maria**! Igandean 2 urte! Nora eta Aneren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Julen**, igandean 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi familiakoen eta, bereziki, Iñigoren partez.



• Azkenean iritsi da zure eguna. Zorionak, **Helene**. 4 patxo handi denon partez.



• Zorionak, **Unax**, bihar 6 urte handi egingo dituzulako. Segi horrela! Muxu pila bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Unax**, asteazkenean 6 urte egin zenituelako. Naroa eta Iraiaren partez.



• Zorionak, **Alain**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Aita, ama eta Ainara arreba txikiaren partez.



• Zorionak, **Naroa**, zure 4. urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki lehengusu Uraitz eta Garaziren partez.



• Zorionak, **Leire**, domekan lehenengo jaunartzea egingo duzulako eta asteazkenean 9 urte egingo dituzulako.



• Zorionak, **Selene**, gaur urtebete egin duzulako. Oso ondo pasa! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Ibai**, etzi 4 urte egingo dituzulako. Aitaxo, amatxo eta lkerren partez.



• Zorionak, **Egoitz**! Bihar oso ondo pasa, zure 12. urtebetetze egunean. Familiakoen eta bereziki, Irtati eta Arkaitzen partez.



• Zorionak, **Adur**, asteartean urtetxo bat egingo duzulako. Muxu potolo bat, aitaxo, amatxo eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Yuri**, gaur 6 urte egin dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, arreba Idoiaren partez.




• Zorionak, **Pepi**, zure urtebetetzean, eta ondo bizi jubilatuta. Eroskiko lankideen partez.



• Zorionak, **aittita eta amama!** Hiru urte baino ez dira falta urrezko ezteiak ospatzeko. Segi elkarrekin disfrutatzeko, orain arte moduan. Nahia.



• Maiatzean urteak bete dituzten **Leire eta Haitzi**, mila kilo zorion.



• Zorionak, **Aimar**, 2 urte egin dituzulako gaur. **Xuban**, zorionak zuri ere, 7 urte egin dituzulako.



• Zorionak, **Danel eta Leire**, zuen bosgarren eta lehen urtebetetzean. Aita, ama eta familiakoen partez.



Erretratu bakarrekog agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.







## 18 martitzena

### Jaialdia

**18:00** Kurtso amaierako bertso jaialdia

Ahozkotasuna lantzen duten ikastetxeek bertso jaialdia egingo dute, Herriko Antzokian.

## 19 eguaztena

### Ikus-entzunezkoa

**21:30** 'Pierra Menta'

Morkaikok antolatuta, Arkaitz Irureta eta Iker Leonardok mendi eskiari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko dute. Musika eskolako auditorioan.

## 21 barixakua

### Erakusketa

**19:00** Berritutako altzarien erakusketa

Eskuz elkarteko ikasleek berritutako altzarien erakusketa inauguratuko dute, Kultur Etxean. Bisita orduak: astelehenetik zapatara: 19:00etatik 21:00etara.

### Jaialdia

**18:30** Ikastolako ikasleen jaialdia

Elgoibar Ikastolako haur hezkuntzako umeen jaialdia. Ikastolako frontoian.



## Gure gomendioa

### Tenis jaialdia

Zapatua, 10:30ean kiroldegian

8 urtetik gorako umeentzako tenis jaialdia antolatu du Kirol Patronatuak, biharko, 40-15 tenis elkartearen eta Di-vertenis enpresaren laguntzarekin. 10:30etik aurrera, beraz, hainbat tenis jardueratan parte hartzeko aukera izango dute umeek kiroldegian: pelotak jaurtizeko makinak, dianak, minitrans eta antzeko jolasak izango dira. Partaide bakoitzak bere raketa eraman beharko du. Eguerdi aldera arte iraungu du jaialdiak, eta amaieran, sariak eta opariak banatuko dituzte.



PREST

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

# ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

**ARRASATE** 2. zikloa  
MAIATZAK 20 osteguna - 17:30

Enpresagintza Fakultatea

**IRUN**  
MAIATZAK 20 osteguna - 18:00

areto nagusian,  
etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - [www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

B

Jarri ezazu zure publizitatea

BARREN astekarian  
943 743 704

Apirilean...

## JAIO TAKOAK



**Sare Rodriguez Garcia**  
Apirilak 5  
Aitor eta Maite



**Alaine Viñaras Gomez**  
Apirilak 7  
Aitor eta Alicia



**Xabat Rey Gurrutxaga**  
Apirilak 17  
Igor eta Eukene



**Gadea Agirre Eizagirre**  
Apirilak 19  
Iñigo eta Leire



**Ibon Izagirre Rodriguez**  
Apirilak 1  
Xabier eta Leire



**Haizea Molina Larrañaga**  
Apirilak 12  
Eduardo eta Olatz

## EZKONDUTAKOAK

• Igor Elizburu eta Silvia Hernandez • Apirilak 10

## HILDAKOAK

Manuela Alkorta Aulestiarte • 95 urte • Apirilak 4  
Jose Vicente Martin • 73 urte • Apirilak 11  
Ibon Izagirre Rodriguez • 7 egun • Apirilak 8  
Andres Osoro Agirregomezkorta • 75 urte • Apirilak 11  
Pedro Zubizarreta Astigarraga • 80 urte • Apirilak 23  
Celestina Lopez Lopez • 84 urte • Apirilak 26  
Maria Begonia Andonegi Gurrutxaga • 68 urte • Apirilak 27

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARREneko erredakziora edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik **2 euro** kobratzen dugu.



# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14-16 behea  
☎ / Faxe: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### García

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 943 74 32 38

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxe: 943 74 73 12  
[www.fjlodoso.euskalnet.net](http://www.fjlodoso.euskalnet.net)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 53 18 47  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 25 45 22

### Pagoaga

San Antollin, 13  
☎ 943 74 02 79

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO  
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05  
Faxe: 943 53 18 25

### Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea  
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



## Proiektu eta erreformak

### Estudios Arrillaga

Errosarlo, 15 behea (Elgolbar)  
☎ 943 744 055/943 744 019  
Arragueta, 12 behea (Eibar)  
☎ 943 200 698



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Killimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
MENDARO  
☎ 659 934 964

### Urzelai

Santa Ana, 12-14  
☎ 943 74 13 76/608 774 032



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04

### Lanusta

Etxe barruko erreformak  
☎ 636 375 323  
[www.lanusta.com](http://www.lanusta.com)



## Autoentzako tindatutako kristalak

### Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia  
☎ 943 74 30 94



## Sarrailagintza

### Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)  
☎ 943 701 391  
[www.giltzak.com](http://www.giltzak.com)



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20

### Ipintza

Foruen enparantza, 4  
☎ 943 74 04 40  
☎ 607 74 04 40

### Ku Koleorea

Urasandi kalea, 26 behea  
☎ 943 74 88 43  
☎ 660 52 25 87



## Lorezaintza

### Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1  
☎ 943 74 01 89  
☎ 688 631 307





# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata,  
Iridiologia eta Homeopata.*

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L., janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta.  
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031  
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### *Sanatana Dharma Yoga Elkartea*

Urasandi, 9  
Tel: 943 748 593 (Ildoa) - 685 722 131  
Astearte eta ostegunetan:  
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/  
18-19:30/20-21:30

*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:  
10-11:30/15-16:30  
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### *Pakene Ongizate Integraleko zentru berria*

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanazintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

## MASAJISTAK

### *Victoria Iraegi*

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)  
Tel.: 943 740 770  
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## PODOLOGOAK

### *Oinberri*

Errosario kalea, 25  
Tel: 943 741 795  
Astelehenetik ostiralera:  
9:00-13:30 / 15:00-19:30

### *Iñigo Arrillaga Yudego*

- Hanken afekzioen terapia.  
- Neurriera egindako plantilak.  
- Hanka diabetikoen zainketa.  
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.  
San Frantzisko kalea, 20 behea  
Tel: 943 741 645  
Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

## FISIOTERAPIA

### *Ainhoa Fisioterapia*

Jausoro, 6 behea.  
Goiz eta arratsaldean.  
Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

### *Andoni Schmidt Larrañaga*

*Etberako Fisioterapia*  
Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajak. Ekipo portatila. Ordua eskatu.  
San Roke 8, behea - Tel.: 689 926 016  
Kontsulta ere badaukagu.

## ORTOPEDIAK

### *Itziar Sarasketa*

San Frantzisko, 12  
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00  
Tel: 943 74 35 62

## OPTIKAK

### *Ikus optiko-optometrista*

San Bartolome, 10  
Egunero: 9:30-13:00  
16:30-20:00  
Tel: 943 743 734

### *Uzuri*

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)  
San Frantzisko, 21  
Egunero: 9:30-13:00  
16:30-20:00  
Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

### *Irale*

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)  
Tel: 943 743 679  
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)  
Tel: 943 177 134  
[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com) - [www.irale.com](http://www.irale.com)

### *Leku eder*

Elena Herrero Lobo.  
Aita Agirre enparantza, 5 behea.  
Tel: 943 530 053 - [lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### *Beitia Arriola*

- Odontologia orokorra eta ortodontzia  
- Haurren Hortzagin programa  
- Panoramikak eta telerradiografiak  
Trenbide kalea 21, behea  
Tel: 943 531 869

